




**MUSIKA  
BULEGUA**

Batzen  
gaituena.

**2024**  
URTEKARIA  
ANUARIO



**Maddi Arana**  
Musika Bulegoko lehendakaria

## Editoriala

2024 heldutasun-urtea izan da Musika Bulegoarentzat, eta, aldi berean, norabide berrietara irekitzeko urtea. Urte honetan zehar euskal musikaren sektoreari proiektu sendo eta berrituekin laguntzen jarraitu dugu, eta bere etorkizunari buruzko galdera ausartak mahai gainean jarri ditugu. Urtekariaren edizio honek xehetasunez jasotzen du orain arte bizitakoa eta etorkizunari begira irudikatzen ari garena: datuak, mugarriak, eta komunitate gisa definitzen gaituzten ahotsak eta begiradak.

Aurten egindako bideak sektorearen zerbitzura egoteko dugun nahia berretsi du: formakuntzan, profesionalizazioan, nazioartekotzean eta industria musikalean gertatzen ari diren aldaketa estrukturaletan laguntzea.

2024 ere hausnarketa partekatuetarako guneak finkatzeko urtea izan da: adimen artifizialaren eraginari, Artistaren Estatutuaren aurrerapenei edo sarrerak birsaltzeko erronkei buruzko eztabaidak izan dira gai nagusiak. Sektoreari entzun diogu eta bere galderei lekua egin diegu. Eta horretan jarraituko dugu, elkarlanean eta elkarriketan bakarrik eraikitzen baita ekosistema indartsu bat.

Orri hauetan, bizi izandakoaren oroitzapenak ere aurkituko dituzue: inspiratu gaituzten izenak, lorpen kolektiboak, eta hausnarketa egiteko aukera ematen diguten datuak. Baina, batez ere, elkarrekin ibiltzen jarraitzeko gonbidapena aurkituko duzue. Euskal musika bizirik dago, anitza da, etengabe eraldatzen ari da. Eta Musika Bulegoa bertan izango duzue, laguntzeko prest.

Eskerrik asko parte zareten guztioi: bazkide, sortzaile, profesional, laguntzaile eta erakundeoi. Zuek gabe ez litzateke posible izango. Aurrera begira, ilusioz eta konpromisoz.

## Etorkizunari begira

2024 izan da nire lehen urtea elkartearen zuzendaritzan eta harrotasunez begiratzen diot egin dugunari.

Etapu hau helburu argi batekin hasi nuen: sektorearen beharrei entzuteko eta erantzuteko gaitasun eraginkorra izatea. Horrek esan nahi du, alde batetik, gure plan operatiboa finkatzea eta egokitzea, identifikatutako behar horiei erantzungo dion kalitatezko eskaintza batekin jarraituz, eta, bestetik, berrikuntza eta malgutasuna uztartu behar ditugula musikaren sektoreak dituen erronka berriei aurre egiteko.

Aurtengo emaitzek erakusten dute bide onetik goazela: komunikazio-inpaktu handiagoa, parte-hartzearen hazkundea jardueretan, eta nazioarteko lankidetzan egindako aurrerapenak, besteak beste. Hori guztia ezinezkoa izango zen zuzendaritza-batzordearen, gerentziaren, bazkideen eta lantaldearen inplikaziorik gabe. Eskerrik asko guztioi.

Etorkizunari begira, erronka berriak ditugu: sektoreko profesionalentzako baldintza duinak, genero-berdintasuna, eta musika gure gizartean funtsezko elementu kultural eta ekonomiko gisa kokatzea. Eta horretan lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.



**Iker Durana**  
Musika Bulegoko  
Zuzendari kudeatzailea

## Zuzendaritza Batzordea

**Lehendakariordea:** Alex López (Kultura Live)

**Diruzaina:** Amaia Ispizua (MIE)

**Idazkaria:** Marina Landa (Musikari)

**Bokalak:** Aitor Ucar (Musikagileak), Amets Rodríguez (MIE), Gotzon Uribe (Kultura Live), Natalia Sánchez (ESAS), Sara Azurza (Musikari).

# AURKIBIDEA

## Elkarrekin eraikitzen: jarduerak eta lorpenak

|                                                                      |    |
|----------------------------------------------------------------------|----|
| 2024ko balantzea eta etorkizuna                                      | 4  |
| Lantaldea. Gure indarra: pertsonak                                   | 6  |
| Musika Bulegoa 2024 datuetan                                         | 8  |
| Etengabeko hobekuntza: Musikaren sektorea profesionalizatzeko bidean | 10 |
| Aukera berriak: Topaketa profesionalak                               | 11 |
| Aukera berriak: Erresidentzia artistikoak                            | 12 |
| Kanpo zabalkundea: Road Map                                          | 14 |
| Jarduerak: Musika Bulegoa Sariak                                     | 16 |
| Jarduerak: LGTBIQ+                                                   | 17 |
| Musikaren Europako Eguna                                             | 18 |
| Soinua Iratzarri / Atlantikaldia                                     | 19 |

## Musikaren sektorea Euskal Herrian

|                                       |    |
|---------------------------------------|----|
| Estudio sobre el sector musical vasco | 20 |
| 2024ko kontzertuak                    | 24 |
| Urteko mugarriak                      | 26 |
| 2024ko uztatik 10 altxor              | 28 |

## Musikaren etorkizuna: erronkak eta hausnarketak

|                                                               |    |
|---------------------------------------------------------------|----|
| Entre algoritmos y melodías: la IA y el futuro de la música   | 32 |
| ¿Estamos ante el principio del fin de la reventa de entradas? | 36 |
| Festa eta aldarriak bat egiten duten tokian                   | 40 |

## Elkarteen Ahotsak

|                                                      |    |
|------------------------------------------------------|----|
| Formatu handiak edo txikian ekoiztearen erronkak     | 42 |
| Salas de conciertos: pilares de la música en directo | 44 |
| Proyectos temáticos museo San Telmo-Musikagileak     | 46 |
| Musikari: fakturazio zerbitzutik haratago            | 48 |

## Elkartasuna eta aldarrikapena musikan

|                                       |    |
|---------------------------------------|----|
| Elkartasunaren doinua DANaren aurrean | 51 |
| ¿Quiénes son ESAS?                    | 52 |

|                               |    |
|-------------------------------|----|
| Guía del Estatuto del Artista | 54 |
|-------------------------------|----|







# 2024ko BALANTZEA ETA ETORKIZUNA EUSKAL HERRIKO MUSIKA SEKTOREAN

Euskal musikako eragile ezberdinek sektorearen osasunari eta etorkizunari buruzko hausnarketa egiten dute Musika Bulegoa Elkartearantz.

Euskal Herriko musikaren sektoreak 2024a zifra errekorrekin agurtu du. Musika-jarduera ugariak sektorearen erresilientzia- eta berrasmatze-gaitasuna islatzen du. Sarrerren salmentaren igoera, streaming-aren kontsumoa eta zuzeneko emanaldien sendotasuna funtsezko ardatzak izan dira eta sektoreko adituek 2024a azken hamarkadako onenetakoa dela adierazi dute. Hala ere, arrakasta horrekin batera, musikak 2025era begira aurre egin behar dien erronkak daude, musikaren iraunkortasuna eta ekitatea bermatzeko.

## ARRAKASTA ETA DINAMISMO HANDIKO URTEA

**Amaia Ispizua** Musika Industriaren Elkarteko lehendakari eta Get In-en promotorearen arabera, 2024 "musika sektorearentzat urterik onenetakoa" izan da. Sarrerren salmentak % 25 igo ziren aurreko urtearen aldean, eta streaming bidezko musikaren kontsumoak goranzko joerari eutsi zion. Gainera, ikusleek gero eta interes handiagoa erakutsi zuten zuzeneko ikuskizunekiko, askotariko ehun artistikoa sendotuz, emakume sortzaile eta artista berrien protagonismo nabarmenarekin.

**Gotzon Uribe**k, Kultura Liveko presidenteak, musika sorkuntzaren urte oparoa ere nabarmendu du, talde askoren agerpenarekin eta kontzertu-aretoetan gero eta publiko handiagoa erakartzen duen tokiko eszenarekin.

Diskografiaren alorretik, **Andres Camio "Jitu"** Elkar argitaletxeko musika arloko arduradunak sektorearen dinamismoa azpimarratu du eta "musika kulturaren motor nagusi gisa berresten" dela eta "sorkuntza ez dela krisian dagoena" esan du. Halaber, Elkarren estudio berria eta Fermin Muguruzaren "40 urteko bira" aipatu ditu, eta biniloaren garrantzia azpimarratu du, ingurune digital azeleratu batean jarraitzaileak izaten jarraitzen duen formatu gisa.

## AURRERAPENAK ETA LORPEN SEKTORIALAK

**Sara Azurza** musikariaren eta Musikariko lehendakariaren arabera, Artistaren Estatutuaren pean PFEZren erreforma onartzea mugari garrantzitsua izan da. Neurri horrek aukera ematen du artisten laneko aldizkakotasuna eta diru-sarrera irregularrak kontuan hartzeko, sektorearen fiskalitatean mugari bat ezarrit.

Bestalde, **Helga Ariase**k, Musikagileak elkarteko presidentek, euskal musika garaikidearekiko interes gero eta handiagoa ospatzen du, bai nazio mailan, bai nazioartean. Zikloak eta jaialdiak sendotu izana nabarmendu du, baina iraunkortasuna bermatzeko erakundeek babes sendoagoen beharra azpimarratu du.

## ERRONKAK ETA ETORKIZUNARI BEGIRA

Arrakasta izan arren, sektoreko ahotsak bat datoz aurre egin beharreko erronka handietan. Horien artean dago kontzertu-aretoei laguntzea, bideragarritasun ekonomikoko arazoei aurre egin behar baitiete, kostu operatiboak handitu egin direlako eta jaialdi handiak direla eta. Lan-baldintzak eta profesionalizazioa ere lehentasunezkoak dira: Artistaren Estatutuaren ezarpenen aurrera egitea eta teknikarientzat hitzarmen arautzaile bat sinatzea funtsezkoa da sektorea duintzeko. **Alvaro Sanz** ABS Iluminación-eko zuzendariak espero du teknikarien lan-harremanak arautuko dituen hitzarmena "berandu baino lehen errealitate bat izatea".

Era berean, ez dute begi-bistatik galtzen mehatxu eta aukera berriak planteatzen dituen adimen artifiziala, hala nola streamingean eta musika-sorkuntzan duen eragina.

Beste erronka garrantzitsu bat genero-berdintasuna sustatzea da, gehienbat gizonak buru dituen sektore batean, eta, aldi berean, euskara babestea mundu globalizatu batean. Musika-konposizioak dokumentatzea eta artxibatzea ere funtsezkoa da, Euskal Herriaren historia musikal aberatsa babestuko duen ondarea sortuz. Azkenik, finantzaketa publikoa eta pribatua indartu behar dira, ekosistema iraunkorra bermatzeko eta artista berriei zein finkatuei laguntzeko.

**Agus Barandiaran**ek, Korrontziren sortzaileak, artista berrientzako laguntza eta kultur finantziazioa indartzeko deia egin du, musika negozio jasangarria bermatzeko. Bien bitartean, Gotzon Uribe tokiko sortzaileak ikusarazi eta haien garapena sustatu nahi du.

Euskal musikaren sektoreak baikortasunez egiten dio aurre 2025ari. Amaia Ispizuak ondorioztatu duenez, "erronka handiak musika merezi duen funtsezko tokian kokatuko duen elkarte-sare sendo batekin bakarrik gainditu ahal izango dira".



# LANTALDEA

## Gure indarra: pertsonak

### IKER DURANA

#### Zuzendari kudeatzailea

Elkarteko Zuzendaritza Taldearekin koordinatuta erakundea gidatzeko estrategien diseinuaz eta kudeaketaz arduratzen naiz. Kultura arloko erakundeek kudeaketan urteak lanean eman ditut eta txikitatik musikarekin harreman estua izan dut, beraz, Musika Bulegora batzeko aukera aurkeztu zitzaidan ez nuen zalantzarik izan, pilotutako eskarmentua eta ezagutza proiektuaren mesedetan jarritz. Geroztik, familia hau osatzen dugun gainontzeko kideekin lankidetzan Euskal Herriko musika sektorearentzat buru belarri lanean dihardut.

[idurana@musikabulegoa.eus](mailto:idurana@musikabulegoa.eus)

### ITZIAR ALZIBAR

#### Administrazioko kudeaketa teknikaria

Zenbakiak eta kontratuak ez dira rock-and-rolla, baina horiek gabe ere musika ez da entzuten. Kontuak eta aurrekontuak doitzeaz eta Musika Bulegoan dena txukun egoteaz arduratzen naiz. Antolatua eta Excel-a beti prest, administrazioa hasieratik amaierara eramaten dut, gainerako taldekideek bereari arreta jar diezaioten... ezustekorik gabe.

[administrazioa@musikabulegoa.eus](mailto:administrazioa@musikabulegoa.eus)

### RUTH MANZANO

#### Komunikazio sailaren arduraduna

Musika Bulegoan zerbait esaten bada, ziur aski nire eskue-tatik pasatu da. Komunikazioan, ekitaldien antolaketan eta proiektuen kudeaketan 15 urte baino gehiago daramadanez, gure mezua argi eta ondo zuzenduta iristeaz arduratzen naiz. Komunikazio-estrategia, hedabideekiko harremanak eta elkartearen marka koordinatzen ditut. Prentsa-oharrak, sare sozialak, elkarriketak edo zabalkundea behar duen edozer? Hemen nago posible egiteko.

[komunikazioa@musikabulegoa.eus](mailto:komunikazioa@musikabulegoa.eus)

### IÑAKI EGITEGI

#### Proiektuen eta Zerbitzuen sailaren arduraduna

Ideiak errealitate bihurtzen dituen saileko kooordinazioa daromat. Kultur esparruko hainbat roletatik igaro ondoren, Musika Bulegoaren funtsa diren proiektuak mimoz kudeatzeako ardura hartu dut, beti ere Euskal Herriko musika sektorearen mesedetan. Aukera berriak sortzea, sarea indartzea eta hazkunde kolaboratiboa dira helmugarako bidean jorratzen ditudan eguneroko atazak. Friedrich Nietzschek esan zuen moduan 'Musikarik gabe bizitza akatsa litzateke'.

[proiektuak@musikabulegoa.eus](mailto:proiektuak@musikabulegoa.eus)

### ARKAITZ VILLAR

#### Proiektuen arduradun teknikoa

Musika Bulegoko kanpo zabalkundea da nire eguneroko oia. Euskal musikaren presentzia sendotzeko helburuarekin, etengabe nabil azoketan, jaialdietan eta sektoreko topaketetan parte hartzen, gure sortzaileen lana programatzaile, agentzia eta eragile ezberdinei ezagutaraziz. Maletan beti flyer batzuk eta agenda betea, gure musikarien bozgorailu izateko gogoz nabil lurralde batetik bestera.

[proiektuak@musikabulegoa.eus](mailto:proiektuak@musikabulegoa.eus)

### ARETA SENOSIAIN

#### Proiektuen arduradun teknikoa

Betidanik bizi izan dut musika pasio handiz toki ezberdinetatik, eszenatoki gainetik edo publikoaren artetik. Orain, ordea, Musika Bulegoaren barnetik lan egiteak erronka motibagarri bat gaineratu dit, hain berezia den gure ekosistema musikalaren beharrak entzutea eta ahal den heinean, hauek asetzea. Ez da lan erraza, badakigu anitza zein konplexua dela gure sektorea, baina prest nago musika inguratzen dutenen ahotsa entzuteko eta elkarrekin etorkizun hobeago bat irudikatzeko.

[proiektuak@musikabulegoa.eus](mailto:proiektuak@musikabulegoa.eus)



Areta Senosiain

Iker Durana

Ruth Manzano

Itziar Alzibar

Arkaitz Villar

Iñaki Egitegi



# kulturklik



ANTZERKIA, MUSEOAK, LIBURUAK, JAIALDIAK, KONZERTUAK, BERTSOLARITZA...  
TEATRO, MUSEOS, LIBROS, FESTIVALES, CONCIERTOS, BERTSOLARISMO...



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



[www.kulturklik.euskadi.eus](http://www.kulturklik.euskadi.eus)



# MUSIKA BULEGOA 2024 DATUETAN

Formakuntzak, jarduerak, erabiltzaile  
kopuruak eta beste lorpen batzuk

**+350**  
**BAZKIDE**

**Musikagileak**

*miel*

MUSIKA  
INDUSTRIAREN  
ELKARTEA

**KULTURA**  
*Live\**  
... ZIRKUITUA ...

**+ PROFESIONAL  
INDEPENDIENTEAK**  
PROFESIONALES INDEPENDIENTES

MU-  
SI-  
KA-  
RI

## ZERBITZUAK eta PROIEKTUAK



**URTEA  
ZENBAKietan**



**25**  
EKIMEN  
EZBERDIN

**47**  
JARDUERA



**9**  
AZOKETAN  
PRESENTZIA  
ANTOLATUTAKO  
JARDUERAK





## Musikaren Sektorea Profesionalizatzeko

# BIDEAN

### 2024an ANTOLATUTAKO JARDUERAK

#### AHOLKULARITZA

**Creative World Forum Inguruko Webinarra:**  
Martxoak 12

**Webinar sobre las herramientas de financiación:** 18 marzo

**Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaren inguruko webinarra:** Apirilak 25

**Ayudas para la promoción del videojuego, podcast y otras formas de creación digital:** 10 diciembre

**Europa Creativa cultura eta mediaren euskal musika sektorearentzako finantzaketa aukerak:**  
abenduak 16

#### FORMAKUNTZAK:

**Distribución digital:** 14 de marzo (en colaboración con MIE Elkartea)

**Propiedad intelectual:** taller de nociones básicas online (en colaboración con Musikari)

**Musikaren banaketa digitalari buruzko master class:** 2 junio (en colaboración con SGAE)

**MUSI MEET:** Urriak 20 (Musikagileak elkartearekin elkarlanean)

**“KLUBAREN” ESPEKTROA:** Azaroak 21 (Kultura Live-ekin elkarlanean)

**Curso online de gestión de derechos de autor de músicos:** 27 noviembre (en colaboración con SGAE)

**Publishing:** 10 y 11 de diciembre (en colaboración con SGAE)

Kalitatezko formazio zein aholkularitza aditua eskaintzen ditu Musika Bulegoak gai berriak mahai gainean jarritz, sektorearentzat ezezagunak edo beharrezkoak diren ezagutzak elkarbanatuz, sektorea hobetzeko, hazteko eta indartzeko.



# TOPAKETA PROFESIONALAK

**Lan aukera berriak bultzatzeko egitasmoak martxan jartzen ditugu. Pasadan urtean topaketa profesional bi antolatu genituen, programatzaile eta sortzaileak elkar ezagutzeko espazioak sortuz. Programatzaileentzat bertako taldeak zuzenean entzuteko aukera izan zen eta, sortzaileentzat, aldiz, euren proposamenak lehen pertsonan erakusteko modu ezin hobea.**

## SAREA:

Es un encuentro entre programadores de la Red de teatros de Euskadi (SAREA) y profesionales del sector de la música que en 2024 cumplió su séptima edición. Los grupos y artistas Kuttune, Mugan, Bele, Alla'antica musika, Ekhi Lambert, Sensei music ensemble, María Berasarte, Iñaki Palacios, Lova loís y Esti Markez presentaron sus nuevas propuestas el día 23 de abril en el Teatro Arriola de Elorrio ante medio de centenar de responsables de programación de varios teatros de Euskadi. Tras esta ronda de presentaciones, todas ellas en formato directo, hubo una sesión de networking favoreciendo un espacio que permite crear o ampliar la red de contactos profesionales de los y las artistas de toda Euskal Herria.

## DA PRO:

Musika Bulegoak eta Gerediaga Elkartek antolatzen duten egitasmoa da. Durangoko Azokaren markoan antolatzen da eta helburua musika euskaraz sortzen dutenei programatzaile publiko eta pribatuaren aurrean euren proiektuak aurkezteko aukera ematea da.

Albina Stardust, Aria, Eider, Erromintxelak, Heriotz, Kai Nakai, Karena, Mikel Urretagoiena, Trigger eta Zilibito records talde eta artistek parte hartu zuten azaroaren 27an Plateruena aretoan egindako topaketa profesionalean hamar minutuko showcase-ekin.

Hautatutako talde eta artistei Amorebieta-Etxano Udalak antolatutako MusikaGaz Fest jaialdian parte hartzeko aukera ere eskaintzen zaie.

Iaz, hain zuzen ere, topaketa honetan parte hartu zuten sei artistek jaialdiaren bigarren edizioako kartela osatu zuten.



© Olga Ruiz



© Olga Ruiz



# ERRESIDENTZIA

## Artistikoak

**Egonaldi artistikoei esker Euskal Herriko sortzaileei euren proiektuak aurrera eramateko aukera eskaintzen zaie.**

### ERROTİK:

#### **Otsailaren 17tik martxoaren 2ra. Ekuatore Ginean**

Musika Bulegoak 2024ko otsailean Ekuatore Ginean antolatu zuen egoitza artistikoa da Errotik. Gipuzkoako bi txalapartarik, Mikel Ugarte eta Manu Gaigne, Afrikako herrialdera bidaiara egin zuten beraien jotzen duten instrumentua ezagutarazteko. Nelida Karr, Nene Bantú, Jay Nvok, Salomon Eduok eta Gabriel Alejandro Salazar musikariek egindako sormen prozesuaren emaitza kontzertu batean erakutsi zuten.

Proiektu honi esker ikuspuntu garaikide batetik abiatuta elkarriketak sustatu ziren bi herrialdeetan sustraituta dauden hainbat musika tresnen artean: bertako basoetatik datoz materialak eta haien erritmoeak, belaunaldiz belaunaldi ahoz transmitituak, sortu diren kulturen jatorriaren identitateak adierazten dituzte.

Ekimen hau aurrera eramateko Bata hirian dagoen Centro Cultural de España Kultur gunearekin eta Gipuzkoako K Bulegoarekin elkarlana burutu zuen Musika Bulegoak.

Musika Bulegoak Iñigo Kintana ikus-entzunezko sortzailearekin batera 2024ko udazkenean estreinatuko den 'Errotik' dokumentala sortu zuen. Dokumentala, Hondarribiko Amua Festibalaren laugarren edizioan parte hartzeko aukeratua izan zan.


### IPARHOTS:

#### **Urriaren 26tik 28ra. Azpeitia eta Biarritz**

EKEk, Atabal aretoak, Kulturaz Kultur Kooperatibak eta Musika Bulegoak antolatzen duten Iparhots egonaldi artistikoaren programan parte hartzeko aukeratua izan zen RTZ Kolektiboa. Baionako taldeak sormena lantzeko ekimen honen bigarren edizioan parte hartuko zuen.

Elkarlan honen helburua musikariei, sortzaileei eta Ipar Euskal Herriko musika eragileei proiektu berriak sortzeko eta lantzeko espazioa, baliabideak eta laguntza eskaintzea da.

Bi zatitan banatutako egonaldiak bi eguneko lan saioak izan zituen eta Atabal aretoan (Biarritz) eta Dinamoa sormen gunean (Azpeitia) burutu ziren.







ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA

# Euskara. Kultura. Mundura.

Gorka Urbizu  
Argazkia: Xavi Torrent



[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)



# ROAD MAP


Euskal Herriko sektorearen nazioarteko sustapena indartzea da elkarrearen helburuetariko bat. Mundu mailako musikaren azoka, jaialdi eta foro estrategikoetan parte hartzen du Musika Bulegoak sektorearen ordezkari gisa.

Euskal Herriko musika sektorearen kanpo zabalkundea Basque.Music proiektuaren markoan gauzatzen da Eusko Jaurlaritzarekin eta Etxepare Euskal Institutuarekin lankidetzan.

| Data             | Ekimena               | Herrialdea               | Ekintzak                                                                                                                                                                                        |
|------------------|-----------------------|--------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Urtarrilak 16-19 | <b>Eurosonic</b>      | Groningen (Herbehereak)  | - Showcase: <b>Divorce From New York.</b>                                                                                                                                                       |
| Maiatzak 7-12    | <b>BIME Bogotá</b>    | Bogotá (Kolonbia)        | - Showcase: <b>Izaro.</b>                                                                                                                                                                       |
| Maiatzak 14-17   | <b>Classical Next</b> | Alemania                 | -                                                                                                                                                                                               |
| Maiatzak 17-25   | <b>Imaterial</b>      | Portugal                 | -                                                                                                                                                                                               |
| Ekainak 22-30    | <b>ISCM</b>           | Danimarka                | -                                                                                                                                                                                               |
| Irailak 18-21    | <b>MMVV</b>           | Vic (Katalunia)          | - Showcase: <b>Gorka Urbizu eta Mikel Azpiroz.</b><br>- Euskal enpresen pitch saioak.                                                                                                           |
| Irailak 20-25    | <b>MIL Lisboa</b>     | Lisboa (Portugal)        | -                                                                                                                                                                                               |
| Urriak 22-26     | <b>WOMEX</b>          | Manchester (Ingalaterra) | -                                                                                                                                                                                               |
| Urriak 29-31     | <b>BIME Bilbao</b>    | Bilbo (Euskal Herria)    | - Showcase: <b>Montana, La Furia, EzEzEz.</b><br>- Laneko gosaria Euskal Herria-Kolonbia.<br>- Euskal enpresen pitch saioak.<br>- Babesletza eta musika mahai ingurua.<br>- Stereorocks x BIME. |









# Musika Bulegoa SARIAK 2024



Los proyectos más significativos del año del panorama musical vasco fueron premiados el pasado 15 de mayo en la sala Zentral de Pamplona. En total, se entregaron 11 premios: ocho asignados por un jurado profesional, uno por el Instituto Vasco Etxepare, el premio honorífico que otorga la junta directiva de EHMBE y la novedad de esta edición: el premio del Público.

En concreto, después de analizar 120 proyectos, el jurado decidió reconocer los trabajos de Bas(h)oan, BilbaoSinfonietta, Ibil Bedi, Izaro, Janus Lester, Maite Arroitauregi y Aranzazu Calleja por la banda sonora de la película Irati, Rüdiger y Zetak. El emblemático sello pamplonés Gor Diskak fue, asimismo, distinguido por su trayectoria por parte de la dirección de Musika Bulegoa.

El premio Instituto Vasco Etxepare de Música, por su parte, fue para el grupo Euskal Barrokensemble por cultivar un estilo propio en el ámbito de la música antigua y combinarlo con otras lenguas y culturas del mundo.

Cada uno de estos nueve proyectos recibió un premio de 2.000 euros y una escultura diseñada por el artista Fernando Mikelarena.

## MÁS DE 300 DISCOS

La junta directiva de Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkarte concede anualmente un premio honorífico. Este año fue a parar a Gor Diskak, sello discográfico navarro que cerró sus puertas en 2023, por su trayectoria y aportación a la música vasca. Más de 300 discos en su haber y descubridores de Berri Txarrak, Manolo Cabezabolo, Exkixu o Ken Zazpi.

La novedad principal de esta pasada edición fue el premio del Público. Los y las amantes de la música pudieron votar a su artista favorito/a través de una aplicación entre los cerca de 50 proyectos finalistas. El primer premio en esta categoría fue para ESAS (Red de mujeres compositoras y artistas).

La gala, presentada por Ainhoa Vitoria y Julen Tellería, contó con actuaciones en directo de artistas premiados. En concreto, se escucharon las melodías de Ibil Bedi, Izaro y Rüdiger. Para cerrar esta edición, y como novedad, Janus Lester ofreció un concierto abierto al público general.



# LGBTIQ+

Otsailaren 29an eta martxoaren 1ean, Musika Bulegoak “Musika, berdintasuna eta LGBTIQ+” jardunaldien bigarren edizioa antolatuko zuen LGBTIQ+ kolektiboko sortzaile eta profesionalak ikusarazi eta musika sektorean duten egoera aztertzeko helburarekin.

Topaketa honetan, LGBTIQ+ pertsonen musikan eta, bereziki, euskal panoraman duten ordezkagarritasunari buruzko hausnarketa egin zen, eta nortasunen ez-normatiboetatik egindako sorkuntza musikala, LGBTIQ+ zirkuituak edo kolektibo honetako profesionalak ibilbidea garatzeko dituzten erronkak bezalako gaiak jorratu ziren. Ekitaldia Donostiako Tabakalera kulturuneke Z Aretoan eta Kutxa Fundazioa Klubean ospatu zen eta bi jardunalditan banatu zen.





# Musikaren Europako Eguna


EKAINAK 21

Musikaren Europako Eguna ekainaren 21ean ospatzen da eta Musika Bulegoak hainbat jarduera antolatu zituen Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban: kontzertuak, haurrentzako inprobisazio-tailerra, mahai-inguruak eta ipuin musikatuak izan ziren elkarteak antolatu zituen ekitaldietako batzuk, horietako batzuk beste eragile batzuekin lankidetzan. Musikazaletasuna sustatzea eta tokiko musika-kultura sustatzea zen jarduera hauen helburua.

Zehazki, elkarteak inprobisazio tailerra antolatu zuen ekainaren 20an, Arabako Santikurutze Kanpezuko Mendialdea Ikastetxeko ikasleekin. Ekimenaren helburua adierazpena eta inprobisazioa sustatzea zen, eta Gasteizko Creative Soul musika eskolaren laguntzarekin antolatu zen.

Hurrengo egunean, Musikaren Europako Egunean, ekainaren 21ean, Bermeoko (Bizkaia) Kafe Antzokian Hofe x 4:40 eta Eire taldeen kontzertua antolatu zen.

Egun hori ospatzeko Musika Bulegoak egindako deialdi berezi baten ondorioz, tokiko hainbat eragilek antolatutako ekitaldi batzuk babestu ziren.



# Soinua Iratzarri



Soinua Iratzarri haurren irudimen musikala lantzen duen sorkuntza lantegia da. Proiektua garatzen den saioetan, musika garaikidea eta musika sortzeko prozesua hurbiltzen zaie haurrei. Musikaekin modu profesionalean lotutako hainbat profilek hartzen dute parte proiektuan: musikariak, musika pedagogoak eta musikagileak. Hilabete batzuetan zehar gauzatzen den proiektuaren baitan, hurbilketa saioak, sorkuntza saioak, entsaioak eta kontzertu bat ere esperimintatzen dute haurrek, haiek oholitza gainean egonda. 2024ko udaberrian ospatu zen Soinua Iratzarriren zazpigarren edizioa, Anoetako Ikastolan eta Irungo Toki-Alai Ikastetxean. Parte hartu zuten musikagileak Haizea Huegun eta Xabier Otaolea izan ziren.



# Atlantikaldia:



## Musika Bulegoaren eta Errenteriako Udalaren arteko lankidetzaren sendotua

Musika Bulegoak urtero parte hartzen du Atlantikaldia jaialdian, Errenteriako Udalarekin duen hitzarmenari esker. 2024ko edizioan, 54 pertsonak hartu zuten parte aurrez aurreko jardueretan, Niessen kulturgunean. Ekimen honek aukera ematen du publiko berri-tara, bereziki umeengana, heltzeko, eta musikarekiko interesa eta sentsibilizazioa sustatzeko.



# LA MÚSICA EN EUSKAL HERRIA: ESTADO, NECESIDADES Y RETOS DEL SECTOR



© Priscilla du Preez

**Musika Bulegoa y el Observatorio Vasco de la Cultura han impulsado un estudio que ofrece una radiografía detallada del sector musical en Euskal Herria. Sus resultados revelan un ecosistema cultural dinámico, aunque también frágil y marcado por desigualdades.**

Con un volumen de negocio estimado en 39,5 millones de euros y más de 646 personas empleadas, la industria musical vasca reafirma su papel como motor cultural y económico del territorio. Sin embargo, este músculo productivo convive con importantes retos estructurales que van desde la precariedad de las y los artistas hasta la necesidad urgente de profesionalización en ciertos perfiles técnicos. El informe se basa en una encuesta a 93 agentes del sector, entre los que se incluyen artistas (58%) y empresas vinculadas

a la industria musical (42%) lo que ha permitido ofrecer un retrato realista del presente y futuro del sector.

## **UN SECTOR DIVERSO, CON LA PRODUCCIÓN EN DIRECTO COMO EJE CENTRAL**

La producción de directos representa casi la mitad (47,8%) de la actividad industrial, consolidándose como el núcleo vertebrador del sector. Le siguen los servicios técnicos y auxiliares (30,4%) y las salas de conciertos (21,7%). Esta diversidad también se refleja en el tamaño de las empresas: mientras un 20,2% factura menos de 80.000 € al año, otro 23,1% supera el millón de euros, lo que evidencia la coexistencia de iniciativas emergentes y estructuras consolidadas.

### PROFESIONALIZACIÓN Y TALENTO

El sector muestra signos de profesionalización, especialmente en el ámbito industrial, pero aún enfrenta importantes carencias estructurales. Una de las más evidentes es la escasez de perfiles técnicos cualificados, sobre todo en la producción de directos. La figura del técnico/a de espectáculo en vivo, clave para el funcionamiento del sector, es también la más difícil de cubrir. Más de la mitad de las empresas declara tener dificultades para encontrar personal formado, lo que apunta a una desconexión entre la oferta educativa y las necesidades reales del mercado.

En el ámbito artístico, la profesionalización presenta una cara más frágil. La intermitencia, la informalidad y la necesidad de combinar la música con otros trabajos siguen marcando buena parte de las trayectorias. La complementariedad de ingresos sigue siendo elevada ya que 3 de cada 10 artistas no pueden vivir exclusivamente de la música. La precariedad contractual y la sobrecarga administrativa también son retos compartidos por gran parte del sector.

### BRECHA DE GÉNERO:

#### MENOS OPORTUNIDADES, MÁS PRECARIEDAD


El informe incorpora una perspectiva de género que confirma lo que se intuía: las mujeres (39,7% del sector) tienen trayectorias más frágiles, sus ingresos son inferiores y ocupan menos cargos de responsabilidad. El 43% de las mujeres

artistas declara ingresos anuales por debajo de los 10.000 euros, frente a una proporción muy inferior en el caso de los hombres. Además, declaran vivir con mayor frecuencia situaciones de estrés, carga de trabajo excesiva e irregularidades en la contratación.

### DIGITALIZACIÓN Y SOSTENIBILIDAD: NUEVOS DESAFÍOS

Aunque el entorno digital y la inteligencia artificial aún no son prioridades para una mayoría del sector (el 61,1% de artistas no ha tomado medidas al respecto), sí se observa una creciente conciencia sobre la necesidad de adaptarse a nuevos modelos de consumo y monetización. También se destaca la importancia de contar con más apoyo público y acceso a financiación —créditos, patrocinios, subvenciones— que permitan sostener y ampliar las iniciativas ya en marcha.

El sector musical en Euskal Herria avanza, pero aún no ha alcanzado todo su potencial. Este informe aporta una hoja de ruta para orientar el trabajo de los próximos años. Musika Bulegoa asume el compromiso de seguir sumando conocimiento, diálogo y acción para fortalecer un sector estratégico para nuestra cultura.



© Federiza Maniezzo





**Errenteriako Kultur  
agenda beti eskura**

**[kultura.errenteria.eus](http://kultura.errenteria.eus)**

La agenda cultural de  
Errenteria en un clic



**KULTURA**  
kreaktibo



**ERRETERIA**  
UDALA

# SEN EAK

BIZKAIA ROCK  
KANPUSA

[www.seneak.eus](http://www.seneak.eus)





# 2024ko KONTZERTUAK DATUETAN

**Orrialde honetan Euskal Autonomia Erkidegoan egindako kontzertuak eta datuak agertzen dira.**

## Kontzertuak: Ekitaldiak, Prezioa eta Espazioa

**5.743**  
kontzertu  
**+% 3,2**  
2023ko datuekin  
alderatuta

2024an, EAEn egin diren 5.743 kontzertu jaso dira Kulturkliken. Ordainpeko kontzertuen batez besteko prezioa 15,8 eurokoa izan da. 2023an 14,4 eurokoa izan zen. Kontzertuen % 49,1 doan izan dira (% 46,2 2023an).

Sarreraren batez  
besteko **PREZIOA**

**15,8€**


14,4 €  
2023an

**PREZIOA**  
(mediana)

**13,5€**

12,0 €  
2023an

## Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera (%)



|          | 2024ko<br>Kontzertuak<br>100.000 biztanleko | 2023ko<br>Kontzertuak<br>100.000 biztanleko |
|----------|---------------------------------------------|---------------------------------------------|
| Araba    | 251                                         | 232                                         |
| Bizkaia  | 226                                         | 217                                         |
| Gipuzkoa | 322                                         | 321                                         |

Araba: % 13,9 | Bizkaia: % 44,6 | Gipuzkoa: % 41,5

Kulturkliken jasotako kontzertuen banaketa lurraldearen arabera aztertuta, kontzertu guztien % 45,0 Bizkaian izan dira, % 40,4 Gipuzkoan eta % 14,6 Araban.

Kontzertuen banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulaturik, Gipuzkoa izan da 2024an kontzertu gehien programatu duen lurraldea: 322 ekitaldi 100.000 biztanleko.

## 3. taula: Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

|                     | 2024ko<br>Kontzertuak | 2023ko<br>Kontzertuak |
|---------------------|-----------------------|-----------------------|
| Euskara             | 26,0                  | 27,0                  |
| Gaztelania          | 19,8                  | 20,0                  |
| Hizkuntza Gabe      | 17,8                  | 17,9                  |
| Hainbat Hizkuntza * | 17,0                  | 14,7                  |
| Ingelesa            | 10,9                  | 13,3                  |
| Beste Batzuk        | 0,9                   | 1,2                   |
| Ezezaguna           | 7,6                   | 5,9                   |

\* Hizkuntza ezberdinetan abesten duten taldeek musika-ekitaldi beraren barruan emandako kontzertuak dira gehienbat.

Kontzertuen hizkuntzari dagokionez, euskara izan da hizkuntza erabiliena 2024an EAEn egindako musika-emanaldietan: kontzertuen % 26 euskaraz izan dira, gaztelaniazko kontzertuen (% 19,8) eta hizkuntza gabeko musika-emanaldien (% 17,8) aurretik.

Hainbat hizkuntzako kontzertuak % 17,0 izan dira 2024an, ingelesezkoen (% 10,9) aurretik.

|                                          | 2024ko<br>Kontzertuak | 2023ko<br>Kontzertuak |
|------------------------------------------|-----------------------|-----------------------|
| Musika Garaikidea*                       | 77,7                  | 77,4                  |
| Musika Klasikoa                          | 7,9                   | 8,9                   |
| Musika Espirituala **                    | 7,7                   | 6,0                   |
| Euskal Musika Herrikoia eta Tradizionala | 3,8                   | 3,8                   |
| Munduko Musikak                          | 2,7                   | 2,6                   |
| Beste batzuk                             | 0,2                   | 1,3                   |

\* (pop-a, rock-a, heavy-a, rap-a, jazz-a, funk-a, fusio-musika, reggaea...)

\*\* (korala, erlijiosoa, gospelsa...)

Musika garaikideko emanaldiek izan dute presentzia handiena 2024ko kontzertuen agendan; guztien % 77,7 genero horretakoak izan dira.

Musika klasikoko kontzertuak guztien % 7,9 izan dira, eta musika espiritualekoak % 7,7.

Kontzertuen % 3,8 euskal musika herrikoia eta tradizionalekoak izan dira, eta munduko musikak generokoak % 2,7.


Kontzertuak Nafarroan

Nafarroako musika-programazioaren azterketa (2024)  
Areto bakoitzeko kontzertu kopurua


| Aretoa        | Kontzertu Kopurua |
|---------------|-------------------|
| Baluarte      | 74                |
| Tótem aretoa  | 64                |
| Navarra Arena | 16                |
| GUZTIRA       | 154               |

Baluarte da musika-jardueraren liderra ekitaldi kopuruari dagokionez, eta Totem aretoak jarraitzen dio; Navarra Arenan, berriz, kontzertu gutxiago daude, baina edukiera handiagoekin.


Areto bakoitzeko kontzertu kopurua




Baluarteko kontzertuen estilo musikalak




Hizkuntzak Baluarteko kontzertuetan




Jatorri artistikoa Baluarteko kontzertuetan



Jatorri Artistikoak Totem Aretoako kontzertuetan




Estilo musikalak Totem Aretoan




Kontzertuak Ipar Euskal Herrian 2024an

| Hilabetea | Kontzertu Kopurua |
|-----------|-------------------|
| Urtarrila | 18                |
| Otsaila   | 28                |
| Martxoa   | 31                |
| Apirila   | 32                |
| Maiatza   | 44                |
| Ekaina    | 53                |
| Uztaila   | 78                |
| Agorrila  | 79                |
| Iraila    | 52                |
| Urria     | 39                |
| Azaroa    | 44                |
| Abendua   | 48                |
| GUZTIRA   | 546               |

Estilo musikalak Navarra Arenan



Jatorri Artistikoak Navarra Arenako kontzertuetan



Informazio iturria: NMC/NICDO eta Totem aretoa

Informazio iturria: EKE (Euskal kultura erakundeak)



# URTEKO MUGARRIAK

## ZEA MAYS “Elektrizitatea 25”



Talde bilbotarrak “Elektrizitatea” abestiaren bertsio berezia grabatu zuen bere bigarren diskoaren 25. urteurrena eta izen bereko abestia ospatzeko. Bilboko Orkestra Sinfonikoaz eta 33 emakume abeslari euskaldunetz inguraturata egin zuten. Bertsio berria 2024ko irailean grabatu zen Urdulizko Tio Pete estudioan, Jose Lastraren zuzendari-tzapean. Proiektu honek Zea Maysen ibilbidea ospatzeaz gain, euskal musika eszenan emakumeen ahalduntzea eta lankidetzaz ere nabarmentzen ditu.

## TULSA Egungo Musiken Sari Nazionala 2024



Miren Iza artista gipuzkoarra, Tulsa izenez ezaguna, 2024ko Egungo Musiken Sari Nazionala jaso du “Amadora” (2023) albumagatik eta bere egokitzapen eszenikoagatik. Epaimahaiak lan hori “album bikain” gisa nabarmendu zuen, “kutsu liriko sakoneko letrekin eta kostunbrismo-tik eraikitako sentsibilitate poetikoarekin, gizartean ordezkari-tza gutxien duten emakumei errebindikatzeko eta ahotsa emateko”.

## RUPER ORDORIKA

Abadia Saria 2024



2024ko irailaren 12an, Ruper Ordorikak Abadia Saria jaso zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiak emana, euskarari eta euskal kulturari egindako ekarpen "jori eta agortezina" eskertzeko. 80ko hamarkadako lehen diskoe-tatik, Ordorika funtsezko pertsona izan da euskal kantagintzaren berrikuntzan, rocka eta tradizioa uztartuz eta bertako zein nazioarteko artistekin elkarlanean ari-tuz. Bere ibilbideak muga berriak ireki dizkio euskarazko musikari.

## JUAN MARI BELTRAN

2024ko Eusko Ikaskuntzaren  
Manuel Lekuona saria



Golardoak Soinuenea-Herri Musikaren Txokoaren sortzailearen lana goraipatzen du, musika ondare tradizionala berreskuratu, babestu eta transmititzeagatik.

## S.A.D.

VillaSoundBilbao Musika  
Bulegoa 2024 saria



"VillaSound Bilbao Musika Bulegoa 2024" saria irabazi zuen Sistemak Arriskutsuak Dira (S.A.D.) Leioako rock taldeak. Sari honi esker Bilboko Kafe Antzokian kontzertua eskaini zuten joan den urrian.



# 2024<sub>ko</sub> UZTATIK 10 ALTXOR

Iker Bárbara

**Euskal musika eszenak proposamen amaigabeen iturri izaten jarraitzen du, soinu tradizionalagoetan oinarritzen diren proiektuetatik abangoardistenetara edo esperimentalagoetara bitartekoa.**

**Hona hemen horietako batzuen lagin txiki bat: hamar diskoren hautaketa bat, gaur egungo gure sortzaileen sormena eta aniztasuna agerian uzten duena.**




## **Gorka Urbizu - "Hasiera bat" | *Only In Dreams***

Ezustean, Nafarroako musikariak bere lehen bakarkako diskoa argitaratu zuen urte hasieran, Jordi Matasekin grabatua eta ekoizpen minimo batekin, Berri Txarraken iraganarekin hautsi zuena. Biluztasun sonikoak nagusi dira lan honetan, ahotsa eta melodia erdigunean jartzen diren bitartean, alferrikakoa baztertuz eta esentziaren alde eginez. "Teoria bat" edo "Toki bat" bezalako abestiek hizkera berri bat erakusten dute, soila baina arimaz betea. Proposamen ausarta, intimoa eta pertsonala... benetako hasiera bat.



## **Elena Setien - "Moonlit Reveries" | *Thrill Jockey Records***

Donostiako artistak bere unibertso sonoro berezia sendotu du disko biziago eta dinamikoago batekin, Glenn Kotcheren erritmoek eta gitarrarekin azkenaldian duen loturak inspiratuta. "Moonlit Reveries" lanak bere pop esperimentalak zabaltzen du folk, jazz edo soul ukituekin, betiere bere giro oniriko eta iradokitzailea mantenduz. Ahotsa, beti aurrean, koadro sonikoen antzeko kantuak gidatzen ditu. Sailkaezina den lan honek artistaren berezitasuna indartzen du, bere izena estilo propio bihurtzeko gai dela erakutsiz.



## **Olatz Salvador - "Zainak Eman" | *Balaunka***

Olatz Salvadorrek bere burua berrasmatzen du "Zainak eman" izeneko bere hirugarren eta orain arteko ausartena den diskoan. Pop elektronikoa besarkatuz, soinu- eta ahots-testura berriak esploratzen ditu fedea eta zaurgarritasuna bezalako gaiak jorratzeko. Eraitza eklektikoa eta dantzagarria da, esperimentazioak eta barne begiradak orekan elkarbizitzen duten lana. Izaro eta Alba Morenarekin egindako elkarlanek aberasten dute bere ibilbidean inflexio-puntua markatzen duen disko hau, ausardiaren eta zintotasunaren bidez bere nortasun artistikoa sendotuz.



## **Ezpalak - "Gatza" | *Patana Records***

Gipuzkoako laukoteak etapa berria ireki du laugarren diskoarekin, bere izaera berretsiz eta bere zigilu propioa estreinatuz. 25 minutu eskasean eta bederatzi abestitan, taldeak amorrua, energia eta jarrera kondentsatzen ditu, rock alternatiboa melodia zorrotzekin eta erretzen duten letrekin uztartuz. Guzti hori ahotsean Juanjo Berasain indartsuarekin eta riff eta produkzioetan Eñaut Gaztañaga bikainarekin. Zalantzarik gabe, aurrerapauso sendoa, soinu gordina, zuzena eta kontzesiorik gabea oinarri hartuta.


**Eneritz Furyak - "hhh" | *Autoekoizpena***

"hhh" lanean, Irungo artistak jauzi ausart eta liluragarria egin du elektronika aske eta experimentalenera. Hasierako post folka atzean utzita, testura, erritmo eta intuizio berriak esploratzen ditu, dantzagarria, misterioitsua eta sakonki artistikoa denaren arteko orekan. Xuxurlatutako ahotsak, perkusio desegonkorrak eta zinematografia-giroak dira lan zabal eta konpromisorik gabekoa osatzen dutenak. Disko ausarta, gaur egungo euskal eszenako sortzailerik bereizgarrienetako bat dela berresten duena.


**Chill Mafia - "Agur eta Ohore X Allá Va La Despedida" | *Oso Polita***

2021ean agertu zirenetik sortu zuten astinaldiaren ondoren, hiru urte beranduago, kuadrilla/kolektiboak agur esan du bere lanik ausartena aurkeztuz. Beren iruditeria zabaldu dute, reggaetoia, rapa, elektronika eta euskal folklorea bezalako estiloak nahastuz, betiko izaera punk eta probokatzaileari eutsiz. Etiketak hausten dituen diskoa da, letra zorrotzez, oinarri dantzagarritz eta DIY jarreraz betea. Baina hau ez da amaiera; bere kideak proiektu berrietara bideratu dira-eta.


**Anari - 'Giza Zarata' | *Tristuraren Industria***

Zortzi urte "Epilogo Bat" argitaratu ondoren, Anari itzuli da, disko gordin, zuzen eta narratibo batekin, non "Giza zarata" soinu-zuko eta politiko bihurtzen den. Azkoitiko artistak espazio berriak esploratzen ditu, lehorrak eta ezinbestekoak diren kantekin, Joaquín Pascual eta Paco Locorekin grabatuak. Bakardadea, amorrua eta kontzientzia soziala gordetzen dute, baina baita argi-izpiak ere. Garaien aurka doan diskoa da, ez haien alde. Azala aldatu du, larrua berritu.


**Sal del Coche - "Ciudad de polvo" | *Humo internacional***

Formazio ezohiko batekin –baxua, bateria, saxofoia, sintetizadoreak eta ahots partekatua–, talde bizkaitarrak no-wave/post-punk biszerala eta loturarik gabekoa esploratzen du bere debuteko lanean. Spoken word-a, testura elektronikoak, eritmo zorrotzak eta haize-lerro garratzak nahasten dira letra surrealistekin eta ekoizpen gordinekin. Inprobisazioa eta urgentzia nagusitzen diren diskoa da, sailkatzeko zaila baina koherentea den nortasun bat sendotuz.


**J Martina - "Negu Gorri" | *Balaunka***

Hirukoteak pop elektronikoa eta konpromiso politikoa uztartzen ditu bigarren disko honetan, egungo krisiak beren belaunaldiko ikuspegitik islatuz. Osorik euskaraz kantatua, taldeak melodia dantzagarriak eta letra borrokalaria nahasten ditu, musika-industria edo klase-borroka bezalako gaiak jorratuz. Verde Pratoren eta Areta Senosiainen kolaborazioekin. Diskoa zuzenekoan eta euskal tradizioan oinarritzen da, "Negua" kantuan bezala, 30eko hamarkadako bertsoetatik abiatzen baita. Beren nortasun artistiko eta borrokalaria berretsi duen lana.


**Bananas - "Erreak nola" | *BCore***

Donostiako boskotea ustekabean itzuli zen bigarren LParekin, screamo bizitik post-hardcore hausnartuago eta melodikoago baterantz salto eginaz. Euskarazko letra zorrotzekin, dinamika biziarekin eta Touché Amoré-ren eraginarekin jarraitzen dute, baina, oraingoan, geldotasun eta sakontasun handiagoarekin. Ultramarinos estudioan grabatua, diskoak amorrua eta xamurtasuna uztartzen ditu zazpi abestitan, izenburuko ibaiak bezala: agertu, suntsitu eta desagertu egiten dira, oihartzuna utziz. Eboluzio natural bat, inolako loturarik onartzen ez duen talde batentzat. Zoritarrez, taldeak duela egun gutxi iragarri zuen agurra.





# GURE JENDEA, GURE KULTURA

Bihotza gure lurrian eta arima munduari zabalik. Horrelaxe babesten dugu geurea. Izan ere, nork bere burua ezagutuz eta estimatuz soilik ezagutu eta estima ditzake besteak.

Horregatik, zuri esker, ateak zabaltzen ditugu egunero, gure lanaren bidez kulturari eta garen bezalakoak izanarazten gaituen jendeari laguntzeko, eta, pausoz pauso, banku kooperatiboa garen aldetik, gure helburua betetzeko: gizarte bidezkoagoa, irekiagoa eta solidarioagoa lortzen laguntzea, tokikoa eta unibertsala eskutik doazen mundu batean.

**Bada beste modu bat.**



**LABORAL**  
kutxa



*Gehien gustatzen zaizkidan  
audio-edukiak plataforma  
bakar batean?*

**guau**  
gure audioa

*Euskal audio-edukien doako plataforma*



Consíguelo en el  
App Store


DISPONIBLE EN  
Google Play



Deskargatu orain  
edo sartu [guau.eus](https://guau.eus)-en



# ENTRE ALGORITMOS Y MELODÍAS: LA IA Y EL FUTURO DE LA MÚSICA



© Ruido 98

Cada avance tecnológico promete revolución. Cada innovación se anuncia como el fin de una era y el comienzo de algo radicalmente nuevo. La historia de la humanidad está repleta de estos momentos bisagra, pero pocas veces nos detenemos a examinar si estas “revoluciones” realmente merecen tal nombre o si son simplemente evoluciones disfrazadas de tsunami.

La música, ese arte que nos ha acompañado desde que nuestros ancestros descubrieron que podían crear sonidos rítmicos con lo que tenían a mano, se encuentra ahora en una encrucijada fascinante. Plataformas como Suno y Udio prometen democratizar la creación musical,

